



## **LEHIAKETAKO OINARRIAK:**

### **1. IZEN-EMATEA**

Maiatzaren 29an jokatuko den lehiaketan parte hartzeko izen-ematea **Maiatzaren 15a** baino lehen egin behar da. Honako hauek izango dira eman beharreko datuak (inprimakia):

- Taldearen izena
- 4 partaideen izen-abizenak eta herriak
- Zein kategoriatan parte hartu behar duten adierazi (emakumezkoenean / gizonezkoenean)
- Zorroztailearen beharrik baden adierazi. Hala bada, zehaztu zorroztailearen izen-abizenak

### **2. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Taldea 4 segalarik osatuko dute. Gizonezkoena, emakumezkoena zein mistoa izan daiteke. Azken kasu honetan, gizonezko edo emakumezko kopuruaren arabera, kategoria batean edo bestean hartuko dute parte.

<b>Emakumezkoen kategoria</b>	<b>Gizonezkoen kategoria</b>
4 emakume	4 gizon
3 emakume + gizon 1	3 gizon + emakume 1
	2 gizon + 2 emakume

Segalari bakoitzak bere sega (bakarra) erabili beharko du dagokion saila mozteko. Segaren neurria librea da.

Aurrez antolatzaileei zorroztailearen beharrik adierazi ezean, segalari bakoitzak zorroztu beharko du bere sega, saila mozterakoan behar hori suertatuz gero. Hala ere, aurrez esan bezala, segalariek zorrozten esperientziarik ez duten kasuan, taldeko zorroztaile bat izateko aukera izango da, baina hori bai, izena ematerakoan adierazi beharko zaie antolatzaileei.

### **3. PARTZELAK**

Ebaki beharreko partzelen neurriak hauek dira:



- Emakumezkoen kategorian: 8 x 15 m<sup>2</sup>
- Gizonezkoen kategorian: 10 x 20 m<sup>2</sup>

### **4. MOZKETAREN ARAUAK**

Talde bakoitzak aurrez zozketan suertatutako partzela moztu beharko du. Zozketa lehiaketa hasi aurretik egingo da. Talde bakoitzak ordezkari bat izango du eta banan bana deituko zaie dagokien partzela zenbakia ateratzeko. Partzela bakoitzari zenbaki bat dagokio.

**Taldeakako III. Segia Lehiaketa Herrikoia**

Talde bereko segalariak txandan-txandan moztu beharko dute dagokien partzelako belarra. Epaileek hasteko baimena eman ondoren ekingo diote taldeko lehen segalariak euren lanari. Sailaren erdialdean mugarri bat egongo da eta lehen hara iristean bigarren segalaria hasiko da. Eta honela, gainerako segalariak ere hurrenez hurren (1. irudia). Oro har, segalariak maila bana moztuko dute, baina gerta daiteke saila, lau maila baino gehiagotan moztu behar izatea ere. Kasu honetan, segalariak, aurrez egindako ordena berean jarraitu beharko dute mozketa lana (2. irudia). Aipatu, behin segalariak maila hasita badauka, amaitu arte jarraitu beharko duela aldaketarik egin gabe, hots, segalari bakoitzak hasieratik amaierara arte moztu beharko du dagokion maila. Moztzen igarotzen den denboraz gain, maila zuzen moztuta egotea ere baloratuko da, baina berau txukuntzeko ez da atzera egiterik izango.



Taldeak lana amaitzean, azken segalariak besoa altxa beharko du amaitu duela adieraziz kronometratzaileek denbora geldi dezaten.



### Taldekako III. Sega Lehiaketa Herrikoia

#### **5. KRONOMETRATZAILEAK**

2 kronometratzaile egongo dira talde bakoitzaren denbora hartzeko. Puntuaketarako batz besteko denbora hartuko da kontuan.

Honetaz gain, kronometratzaileek, segalari bakoitza mozten hasi behar deneko unea ere zainduko dute.

#### **6. EPAIMAHAIA**

Epaimahaia 4 epailek osatuko dute. Hauetako bat epaile nagusia izango da eta honen erabakiak aldaezinak izango dira. Lehia hasi aurretik partzela bateko belarra moztuko da epaileek irizpideak finka ditzaten.

#### **7. MOZKETAREN BALORAZIOA**

Sail bakoitza moztean hasiko da epaileen puntuaketa lana. Puntuaketa hau mailaren zuzentasuna eta mozketaren txukuntasunaren arabera izango da. Lehenbizi zuzentasuna neurtuko da eta jarraian, belar biltzaileek garbitzean txukuntasuna puntuatuko da. Horretarako irizpide hauek jarraituko dira:

- Mailaren zuzentasuna: 0-4 bitartekoa, 0 oso zuzen izango delarik (0,0'5, 1, 1'5, 2, 2'5, 3, 3'5, 4)

- Txukuntasuna: mailaren zuzentasuna bezala neurtuko da.

Arlo bakoitzean epaile guztiek emandako puntuaketa eta bi arloetako emaitza batu egingo dira. Puntu bakoitzak 8 segundoko penalizazioa izango du eta mozketaren balorazioa ondoko biderketaren bidez neurtuko da:

$$\text{EMAITZA}_{\text{MOZKETA}} = (\text{EMAITZA}_{\text{ZUZENTASUNA}} + \text{EMAITZA}_{\text{TXUKUNTASUNA}}) \times 8 \text{ seg}$$

Behin talde bakoitzaren saioaren denbora harturik eta epaileek dagokien puntuaketa eman ondoren, bien batura egingo da. Honela, emaitzarik baxuena duen taldea suertatuko da garaile eta hurrenez hurren gainerako taldeak.

$$\text{EMAITZA}_{\text{GUZTIRA}} = \text{DENBORA} + \text{EMAITZA}_{\text{MOZKETA}}$$

Aipatu, taldea deskalifikatua izan daitekeela:

1. Lana amaituta delarik belar saila ukituz gero
2. Norberaren saila ez den bat zapalduz gero

#### **8. ERREKLAMAZIOAK**

Zelaiaren egoera dela eta ezadostasun edo zeresanen bat balego (zuloak, sator zuloak, una zapalduak, ezohiko gauzak zelaian –harriak, egur puskak,...) epaileei aditzera emateko aukera dago baina betiere honako puntu hauek errespetatuz:

- Erreklamazioak taldeko ordezkariak bakarrik egin ditzake
- Behin saila epaituta badago ezin da erreklamaziorik egin



### **Taldekako III. Segia Lehiaketa Herrikoia**

- Epailen nagusiak lehia geldiaraziko du erabakia hartu arte. Behin hartutako erabakia aldaezina izango da.

Sailkapenaren berri ez da jakinaraziko sariak banatzeko unera arte.